




Afliazioa %2,0 hazi zen otsailean

Gizarte Segurantzako afliazioa
Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantzak.

Otsailean, Gizarte Segurantzako afliazioa %2,0 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, 2023aren amaieran hasitako goranzko joera berretsi da, aurreko hileko erregistroa hamarren batean gaindituz. Zehazki, 1.007.000 afliazio baino gehiago erregistratu ziren, otsailean inoiz izandako kopururik handiena.

Langabezia erregistratua %1,6 jaitsi zen otsailean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %1,6 murriztu zen otsailean. Balio absolutuetan, langabeen kopurua 110.500era iritsi zen. Beste behin ere, emakumeen kolektiboak nozitu zuen langabeziaren eragin handiena, ia 64.000 emakumek ez baitzuten lanik. Bestalde, biztanle gazteen artean berriro ere igo egin da langabezia (%6,4).



Industriaren ekoizpena %1,3 hazi zen urtarrilean

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko urtarrila




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako azken datuen arabera, **EAEko industria produkzioa %1,3 hazi zen 2024ko urtarrilean, aurreko urteko aldi beraren aldean**. Hazkunde horren buru kokatu zen energia produkzioak lortu zuen hobekuntza (%8,9), ondoren ekipamendurako ondasunak (%5,4) eta kontsumorako ondasun iragankorrak (%2,4) etorri zirelarik.

EAEko BPGa %1,8 hazi zen 2023an

EAEko BPGaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu dituen kontu ekonomikoek adierazten dutenez, **EAEko BPGa %1,8 hazi zen azken urtean**. Laugarren hiruhilekoan, hazkundea %1,7 izan zen, aurreko aldiko erregistro bera. Orobat, enpleguak %1,7 egin zuen gora 2023an, eta %2,1 urte horretako azken hiruhilekoan.